



**Fantasiatzko eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

Fanzineen Gerra 2026

Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 37. Asteak, FNACekin elkarlanean, berriro antolatu du Fanzineen Gerra, berriro ekin dio euskarri horien bidez generoarekiko grina bizia aditzera eman eta aldarrikatzeko.

Tinta eta paperezko gerra honetan Astea dela eta argitaratutako hainbat fanzine lehian arituko dira publikoaren babesa lortzeko datozen **urriaren 30a eta azaroaren 6a bitartean**.

Izena emateko epea **urriaren 14a arte** egongo da zabalik, **eguerdiko 12:00ak arte**. Gehienez **6 taldek** parte hartuko dute. Bi hautaketa-irizpidek izango dute lehentasuna: lehena, aurretik inoiz parte hartu ez izana gerran eta, bigarrena, inskripzio-ordena.

Oinarriak: www.sansebastianhorrorfestival.eus

Inskripzioa: guerrafanzines@gmail.com

GINARRIAK

- Gutxienez 2 kidez osatutako taldeek eman ahal izango dute izena Gerran. Inskripzioak egiteko azkeneko eguna urriaren 14a izango da, 12:00ak arte, helbide elektroniko honetan: guerrafanzines@gmail.com
- Gehienez 6 talde onartuko dira. Talde bakoitzari, gehienez, banakako bi akreditazio doan emango zaizkio Asteko emanaldi guztietan sartzeko. Horren ordainetan, fanzinea egiteko konpromisoa onartzen dute, baita jendaurrean aurkezteko ere.
- Talde bakoitzak izen bat aukeratu beharko du eta fanzinea paperezko 8 orrialdetan (azala eta kontrazala) egin beharko du zuri-beltzean. Orria A-5 neurrikoa izango da.
- Fanzineen edukiak fantasiatzko eta beldurrezko zinemaren munduarekin, herri kulturarekin, nostalgia frikiarekin... lotuta egon behar du bere osotasunean edo partzialki. 2 orrialdek gutxienez lotura izan behar dute 2026ko Beldurrezko Astearen programazioarekin. Edukiaren zati bat aldeztu aurretik prestatu ahal izango da. Euskaraz edo/eta gaztelaniaz sor daitezke.
- Fanzineak parte-hartzaile bakoitzaren baliabide propioekin (idazketa, maketazioa...) egin beharko dira.
- Fanzineek Beldurrezko Astearen eta FNAC Donostiaren logotipoak eduki beharko dituzte. Logotipo horiek antolakuntzak emango ditu.
- Fanzine bakoitza antolakuntzari entregatu behar zaio, parte hartuko duen talde bakoitzari emandako egunaren eta orduaren aurretik, pdf-ko artxibo digitalean eta erreproduzitzeko beharrezkoa den gutxieneko kalitatearekin.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

- Asteko publikoak baloratu ahal izateko, antolakuntzak fanzine bakoitzetik behar diren kopia guztiak egingo ditu.
- Talde bakoitzak 10 minutu izango ditu gehienez kanpaina egiteko, publikoaren aurrean bere fanzinea aurkeztu eta bere aldeko botoa eskatzeko, antolatzaileek emango dioten egunean, urriaren 30a eta azaroaren 5a bitartean.
- SARIAK. Talde irabazleak FNACen erosteko hiru opari-txartel lortuko ditu. Txartel bakoitzak 50 euroko balioa izango du. Eraitza azaroaren 6ko amaiera-ekitaldian emango da ezagutzera.

Parte hartuko duten fanzineak zinemaldiaren webgunean jarriko dira:

www.sansebastianhorrorfestival.eus



FNAC FALTA ZAIZU | FNAC.ES



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura